

# ZUZENBIDEKO GRADUA

## ZUZENBIDEAREN HISTORIA

GREGORIO BALPARDA DE LAS HERRERÍAS,  
POLITIKO, HISTORIALARI ETA KRITIKO  
POLEMISTA

Aner Arrate Quintana, Ikaslea

Jon Arrieta Alberdi, tutorea

Gradu Amaierako Lana: 2021-2022



ZUZENBIDE  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE DERECHO

## **AURKIBIDEA**

<b>1.- Sarrera.....</b>	<b>4</b>
<b>2.- Testuinguru historikoa.....</b>	<b>5</b>
<b>2.1.- Historialariaren bizitza.....</b>	<b>5</b>
<b>2.2.- Balpardak bizitako testuinguru historikoa.....</b>	<b>7</b>
<b>3.- Balparda eta bere jarrera politikoa.....</b>	<b>9</b>
<b>3.1.- Balpardaren pentsaera.....</b>	<b>9</b>
<b>3.2.- Errores del Nacionalismo Vasco.....</b>	<b>11</b>
<b>3.2.1.- Balparda eta Bizkaitarrismoa.....</b>	<b>13</b>
<b>4.- Balparda historialaria.....</b>	<b>14</b>
<b>4.1.- Historia Crítica de Vizcaya y de sus Fueros.....</b>	<b>14</b>
<b>4.2.- Kokapen historiografikoa.....</b>	<b>17</b>
<b>4.3.- Balpardaren eragina 1899ko kodegintza proiektuan .....</b>	<b>19</b>
<b>4.4.- Balorazioa foraltasun pribatuan.....</b>	<b>21</b>
<b>5.- Ondorioak.....</b>	<b>26</b>
<b>6.- Bibliografia.....</b>	<b>30</b>



## 1.- Sarrera

Gregorio Balparda de las Herrerías zuzenbide historialari kritikoari buruzko lana da hau, bere pentsaera eta obra identifikatu, dagokion testuinguru sozio-politikoan jarri, eta aztertzeke xedearekin. Lan honek, aldi berean, bere pertsonari eta izaerari buruzko hainbat adierazpen izango ditu, izan ere, bere izaera gogor eta egizaleak, alderdi handi batean bere obra definitzen duela uste baitut. Garrantzi berezia, halaber, izan zituen ideia eta tesi nagusiei.

Balpardaren obra aztertzea aukeratu nuen, hasiera batean behintzat, eremu publikoari bai pribatuari buruz Euskal Nazionalismoari buruz adierazi delako. Eremu biak aztertzea nuen helburu, lan bakarrean Euskal Nazionalismoaren, eta estuarki lotuta, foraltasunaren alderdi publiko zein pribatuak aztertu. Horrez gain, Balpardak Nazionalismoa sendoki kritikatu zuen, aldi berean Bizkaiko historia eta zuzenbidea sakonki aztertu eta ezagutzen zuen pentsalaria zen einean. Ondorioz, azterketa hau Balpardaren bitartez egitea berebiziko egokia iruditzen zait, behin bere obrari buruz ezagututa, honek daukan kutsu kritikoak lanari gehitzen dion interes bereziagatik.

Balpardaren figura eta bere obra aztertu ahal izateko, zutabe ardatza izan da Iñaki Iriarte Lópezen, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11 liburua. Obra hau hainbat aldiz aipatuko da txostenean zehar, berebiziko garrantzia izan baitu Balparda aztertu eta ulertzeko.

Arrazoiak pertsonalak diren einean, gai hau aukeratzea estuarki lotuta dago notaritzako lanarekin: eskritura publikoen erredakzioa. Hau da nire

eguneroko lana, eta esperientzia hori baliatuz, Balpardaren ideiak eta bere garaiko eta iraganeko bizkaitar gizartea hain ondo ezagutzen zuenez, interesgarria izan zitekeela bere obra ezagutzea.

Pentsa daiteke, printzipioz behintzat, eskritura publikoak ez daukatela zer ikusi handirik foraltasunarekin, eta are gutxiago Balpardak bere lanetan adierazi zuenarekin, baina Bizkaian idazten diren eskritura publiko asko eta askok foraltasunarekin lotura estu-estua daukate, bai eta Balpardak kritikatu zituen hainbat eta hainbat figura juridikorekin, eta alderdi handi batean, kritikatu zituen hainbat figura juridiko egun indarrean jarraitzen dute. Beraz lan honen helburuetako bat hauxe da: Egunerokotasunean hainbeste ikusten ditugun eskritura publikoak, Balpardak, sakonki aztertu ondoren hainbeste kritikatzeko zituen figura juridikoekin bateratzea, eta honek planteatutako arazoak aztertzea, hauen isladan.

## **2.- Testuinguru Historikoa**

### **2.1.- Historialariaren bizitza**

Balparda 1874-ko urtarrilak 17-an jaio zen, Bilbon. Bere aita, Ricardo de Balparda, abokatu izan zen, bai eta diputatu izatera heldu zen, lehenengo, Durangoko Gorteetan, eta ondoren, Balmasedakoan. 1886-an, ordea, tuberkulosiak jota hil zen, Gregorio Balpardak 12 urte zituelarik.

Ongizko familiako seme bezala, Zuzenbide eta Filosofia ikasteko aukera izan zuen historialariak, Deustoko unibertsitatean. Ikasketen azken urtean, Madridera lekualdatu zen, non Zuzenbide gradua lortu zuen, bai eta doktorego lana egikaritu. Behin Bizkaiara bueltan, hainbat enkarterrietako ordezkariarekin batera parte hartu zuen talde politiko bat sortzeko asmoz batu zen bilera batean; “Unión Vascongada” deitua; zeinak ez zuen aurrera egin.

1903-an Balparda Bilboko udal hauteskundeetara aurkeztu zen, hautatu liberal bezala, aukeratua izan zelarik. Hortik bi urtera, 1905-ean, Madrilén sortutako gobernu liberalaren eskutik, Bilboko Alkate aukeratu zuten Balparda<sup>1</sup>. Halaber, bere mandatuan hainbat zinegotzi talde desberdin zeuden udalaren kargu eta Balparda talde ezkertiarrekin batzen saiatu zen, baina azkenean talka nabarmenak izaten amaitu zuten. Eskuindar alderdiak ere guztiz alboratu zituen, erlijioari buruz (eta zehazki, organismo erlijiosoek zeukaten indarraren aurka) agertzen zituen ikuspegiengatik. Honen jarraipenarekin, 1907-an bere Alkate postua lagatzera behartua egon zen, 1909-ra arte zinegotzi bezala jarraitu zuelarik.

Hurrengo urteetan, eta oraindik zinegotzi bezala, hainbat proiektu liberalistetan sartuta egon zen, bai eta alderdi liberalak batu eta elkartu nahian, “El sitio” erakunde liberalaren presidente bezala<sup>2</sup>. (Iriarte, sarrera, 10. Orrialdea). 1918-garren urtean, Balparda Balmasedako Gorteetako hauteskundeetara aurkeztu zen, nazionalisten aurrean porrot eginez. Honek “Liga de Acción Monárquica” tealde sortaraztera eramán zuen, eta 1919-an bigarren aldiz aurkeztu da Balmasedako Gorteen hauteskundeetara, talde sozialisten euskarriarekin. Hauteskunde kanpainak iraun bitartean, bere autoa tirokatu zuten, baina ez zuen inongo kalterik jasan. Azkenik Balparda hautatu agertu zen, politiko bezala (diputatu bezala) iraun zuelarik Primo de Riveraren diktadura heldu zen arte, Balpardak honen aurrean guztizko ukatzea erakutsi zuelarik, “Liga de Acción Monárquica” taldetik bananduz, eta politika behin betiko lagatuz.

Une artatik aurrera, Balpardak, politika alde batera utziz, bere zuzenbide eta historia inbestigazioetan jarri zuen bere arreta guztia, eta 1929-tik aurrera, Bilboko Gizarte Zientzia eta Zuzenbide Akademiaren presidente

---

<sup>1</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 9. Orr.

<sup>2</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 12. Orr

bezala arituz. Hurrengo urteetan zehar, bizitza politikotik guztiz aldentuta bizi izan zen, baina betiere bere errefusa adieraziz autonomia erregionalen estatutuei, adierazitako Akademiaren bitartez.

1935 bere azken obra izango zena publikatu zuen, “La tercera República y la restauración del Estado Nacional”, eta urte honen bukaeran, beraz, Gerra Zibila pairatu. Une artako Gobernuak Iparreko Gerrako Auditoretza buru izendatu zuten, Balpardak, kargu hau behin eta berriz ukatuz. Honen ondorioz, 1936-ko Abuztuak 31-an bahitua eta espetxeratua izan zen, Cabo Quilates kartzelan, non egun berean, espetxe zaindarien erailtzen duten<sup>3</sup>.

## 2.2.- Balpardak bizitako testuinguru historikoa

Gregorio Balpardak bizi izan zuen testuinguru historikoa benetan harrigarria da, eta bere bizitzak, adierazi den forman. Hau ulertzen eta ikuskatzen laguntzen digu, autoreari buruz idazteko arrazoietakoa bat izanik; Bizkaia, XIX. Mende bukaeran eta XX. Mende hasieran.

Mende hasierarako Bilbok aurreko mendean izan zuen biztanleria baino 10 aldiz gehiago zeukan, hazkunde harrigarria izan zuelarik. XX. Mende hasiera honetan, eta transtzizio horretan, metalurgia, siderurgia, merkataritza... Benetan indar izugarria hartzen hasi ziren, baina Bizkaiak, bere horretan, rurala izaten jarraituz. Bizkaian oraindik Gerra Carlistaren aztarnak geratzen ziren, gehien bat, Foruen galera zela eta. Honi kutsu erlijioso sendoa gehituz, Bizkai Nazionalismoaren sorrera eta berehalako hazkundera eta hedakuntza agertuziren. Ikuspegi integrista, erlijioso eta arrazista honek<sup>4</sup>.

---

<sup>3</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 12. Orr

<sup>4</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 23. Orr

Bi ikuspuntu kontrajartzen zituen etengabeko aldaketan eta proliferazioan zegoen Bizkaia horretan:

Alde batetik, Espainiar lurralde desberdinetatik datorren gentea zegoen, muturreko txirotasun eta beharrianak bultzatuta, Bizkaiara emigratu zutenak. Migrazio honi “efecto llamada” efektua gehitu zitzaion, migrazio masibo eta eskalonatuei bultzada izugarria eman zielarik, populazio kantitate oso handiak mugituz<sup>5</sup>. Hala pertsona multzo izugarri bat bildu zen Bizkaian, pobrezia sinezgaitzetik datorrena, eta ideia sozialisten guztiz aldekoa; ongi pribatuen abolizioaren aldekoa, bai eta sistema parlamentarioaren bukaerarekin eta proletarioen diktadurarekin amesten zutenak.

Horren aurka, esan bezala, guztiz kontrajarria, karlista eta dinastikoak zeuden, zeinak talde ezberdinetan banatzen ziren, baina guztiak Bizkaiko aurreko ideia dinastikoak jaso zituzten taldeak. Azken hauen arteko borroka diputatu, senatari eta zinegotzien hauteskunderen bitartez egikaritu zen, hartan zegoen egoera politiko ezegonkor eta aldakorren ondorioz<sup>6</sup>.

Borroka honetan kokatzen zen, beraz, gure autorea, egoera politiko ezegonkorrari estu lotuta, bai eta zeuden hauteskunde anitzetan ematen zen ustelkeri eta prebarikazioari ere estuarki lotuta zegoelarik, izan ere, egoera politiko horren ezaugarrietako bat zen hauteskundeetako biolentzia, faltsifikazioa eta manipulazioa<sup>7</sup>.

Balparda ez zen urruti geratzen ustelkeria egoera honetatik, izan ere, berak askotan akusatu zituen bere aurkariak, nazionalistak, praktika hauengatik, baina bera ere akusatua izan zen aldi berean, eta uneko egoera kontutan hartuta, bai eta Balpardak

---

<sup>5</sup> Rocío GARCÍA ABAD; *Las redes migratorias entre el origen y la Ría de Bilbao a finales del siglo XIX: una aproximación metodológica*, Revista Demográfica Histórica, volumen 20, Nº 1, 2001. 27. Orr

<sup>6</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 24. Orr

<sup>7</sup> Ander DELGADO CENDAGORTAGALARZA *La transformación de la vida política en la Bizkaia rural durante la restauración 1890-1923, Extranjeros en el pasado. Nuevos historiadores de la España contemporánea*, Universidad del País Vasco, 2009. 192. Orr



berak Luis de Salazarri idatzitako gutun pertsonal batean adierazten ziren baieztapenengatik, agian Balparda bera ere hauteskundearen manipulazioaren egunerokotasuneko partaide izan zela pentsa daiteke, adierazi bezala, momentuan guztiz normalizatua zegoen praktika.

### **3.- Balparda eta bere jarrera politikoa**

#### **3.1.- Balpardaren pentsaera**

Gregorio Balparda Euskal Nazionalismoaren kritiko sutsua izan zen. Balpardaren hitzetan, Euskal gizartea “asmatutako” gizartea zen, hots, modu artifizialean eratutako eta independentzia bilatzen zuen gizartea, nazio liberala apurtzeko asmoz<sup>8</sup>. Ondorioz, Balpardaren kritikak ez zihoazen soilik Euskal Nazionalismoari zuzenduak, baizik eta Euskal Herri eta Euskal identitate artifizial bati, bere ikuspegitik, errealak ez zirenak. Honen harira Balpardari, geroago Frankismo bilakatuko ziren ideietara hurbiltzea leporatu zitzaion.

Ezaguna denez, bere izena jarri zitzaion Bilboko kale garrantzitsuenetariko bati -1938tik aurrera “Autonomía”- bai eta honekin batera, bere homenez eskultura bat eraiki. Horretaz gain, esan daiteke Balparda nolabait Altxamenduaren alde agertu zela, zeren, aurretiaz adierazi bezala, Guda Auditore bezala karguratzea errefusatu zuen, Abokatu Eskolari zuzendutako gutun batean adierazten duenez, Altxamendu militarra zuzen eta heroikoa kontsideratuz. Halaber, Cangasen hitzetan, Balparda liberal, demokrata eta antiklerikala zen, Gerra Zibil aurretik alderdi aurkaratu bien kontra adierazi zena<sup>9</sup>.

---

<sup>8</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 13. Orr

<sup>9</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 13. Orr

Balpardak ere bere burua modu horretara definitu zuen: Liberal eta Demokrata bezala, hau modu absolutuan aplikagarri ez bazitzaion ere. Honen adibide, Balpardaren libre merkataritzari buruz izandako ideia daukagu, zeina guztiz baztertzen zuen, eta politika babestaileak bultzatu, hots, Estatuaren eskuartzea ekonomian eta politika babestaileak defendatzen zituen. Horrela ba, aztergaitzat daukagun historialariak oso pentsaera konplexua zeukan, eta ez da erraza bere ideologia zehazki puntu konkretu batean kokatzea.

Balpardaren izaera kritikoa ere idazteko eta adierazteko zeukan forman zuzenki irudikatzen da. Balpardaren idazkera estiloa konpulsiboa eta askotan, nahasia bezala identifikatu daiteke. Bere esaldi luzeak hainbat ideia nahasten dituzte; esaldi bakoitzak hainbat eta hainbat ideia barnebiltzen ditu, eta aldi berean, ideia bakoitza sakonki matizatzen da. Adibidez, Nazionalismo hitza erabiltzerakoan, honen izaera atzerakoia agertzen zuen. Estatu terminoa aipatuz gero, Estatuaren botereak gizabanakoen askatasuna dakarrela adierazten zuen, naiz eta honek esaldiaren sentzua desfiguratu<sup>10</sup>.

Estuarki lotuta, azkenik, bere izaera pertsonala dago. Idazteko modua zen bezala, Balparda oso pertsona zuzena izan zen, inongo lehuntasun gabekoa eta gogorra bere ideiak azaltzerakoan, eta adierazpen bat egin gabe geratu ezin zena, edo beste modu batera esanda, pertsonai polemista izan zela baieztatu dezakegu. Bere bizitzan zehar askotan erakutsi zuen bezala, ez zen inoiz ixiltzen bere printzipioak jokoan zeudenean, naiz eta horrek askotan bere integritatea ere arriskuan jartzen zuen. Bere heriotza, adierazi dugun bezala, ideia honen isla perfektua litzateke. Laburbilduz, beraz, historialaria berebiziko kritikoa izan zen, polemika askotan sartutakoa -alderdi handi batean, izan zuen izaeragatik, adierazi bezala- pentsamendu konplexuduna eta momentu sozio politiko berezi batean bizia.

---

<sup>10</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 17. Orr

### 3.2.- Errores del Nacionalismo Vasco

XIX. Mende bukaeran eta XX. Mende hasieran Euskal Nazionalismoaren aurka agertu ziren talde eta autore anitz egon ziren. Alde batetik, Karlista eta Integristak, ikuspuntu tradizionalista eta antiliberalak zeuzkatenak. Bestetik, Eskuindar Dinastikoak, zeinak 1920 aldera, Euskal Nazionalismoarekin ikuspuntu faxista bat hartu zuten<sup>11</sup>. Azkenik, ezkerreko Euskal Nazionalismoaren aurkakoak: Sozialistak, Errepublikano Federalak eta Liberal-Demokratak. Azken talde honetan kokatzen zen Balparda, honen bozeramaile nagusienetariko bat izan zelarik. Halaber, Balpardak gainontzeko Euskal Nazionalismoaren aurkako taldeekin harreman konplexuak izan zituen. Balparda Nazionalismoaren aurkako zen, eta bere aburuz, Euskal Nazionalismoa Carlismoaren ondorengoa zen; eta Erljioa honen nukleo bezala. Liberalismoak erlijioari kendu zizkion hainbat abantailak direla eta, Carlismoaren altxamendua sustatu zutenak hauek izan zirela adierazi zuen Balpardak, eta aldi berean Carlismoak Euskal Nazionalismoa sortarazi, liberalen aurkako mugimendu bezala<sup>12</sup>. Honen ondorioz, aurretiaz adierazi bezala, Balpardak Euskal Herriaren identitate ideia, bai eta Euskal Nazionalismoa artifizialki sortu ziren ideiak zirela baieztatzen zuen. Laburbilduz, beraz, Balpardaren ustez, bai Carlismoa bai Euskal Nazionalismoa leku beretik eratorritako kontzeptuak ziren.

Bere adieraz, beraz, Bizkaia ez zen inoiz izan independente historian zehar, eta ideia hau, Balpardaren izaera kritiko eta polemikoari jarraiki, mugara eramane zuen hainbat aldiz, hain berea zen tonu satiriko, polemista, eta azken finean, adarjotzailearekin:

*“[...] mientras en el resto del mundo cristiano las rudas costumbres del feudalismo mantenían un régimen de hierro [...] mientras todo en Europa era sangre y tiranía y servidumbre, disfrutaban en estos*

---

<sup>11</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 57. Orr

<sup>12</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 61. Orr

*risueños valles nuestros padres de un patriarcalismo roussoniano, Arcadia feliz merced a las primitivas y espontáneas libertades en que venerables ancianos presidían democráticos batzarrak y ejercían el suave y tutelar dominio de su autoridad paternal sobre un pueblo libre, culto y federal, exento de odiosas contribuciones y del abominable servicio militar.<sup>13</sup>”*

Halaber historiaren bertsio hau denboran zehar hainbatetan kontsolidatu izan zen: Euskal lurraldeak independenteak eta arau propioen menpe bizi izan zirela, beste Erreinuren baten menpe egon gabe. Balpardaren obrak zehazki Euskal historiaren bertsio hau faltsua zela erakustera bideratuta zeuden. Iriarterek horrela laburbiltzen ditu, honen harira, Gregorio Balpardaren Obrak dituen bost tesi nagusiak, eta bere obretan errepikapen nabaria dutenak:

- 1.- Bizkaitar izaera, bai eta beste Euskal lurraldeena banaezina da Castillatik, inoiz ez ziren independente izan.
- 2.- XIII. Mendetik aurrera Foruen xedea ez zen Castillatik independentzia lortzea, baizik eta jauntxo lokalen aurrean borrokatuta lortutako eskubideak errespetatuak izatea.
- 3.- Foruak eskubide eta askatasun lokalak ziren einean, ez zeukaten probintziasunetik; munizipio mailara soilik luzatzen ziren.
- 4.- Foruek ez zeukaten izaera original propiorik; aldiz, Castillako legediaren oso antzekoak ziren.
- 5.- 1812-an Euskal Foruak desagertuziren, baina Cadizko Konstituzioan barnebilduz.<sup>14</sup>

Kritika honi lotua hizkuntza daukagu. Euskera, sentzu hertsian, familiaritate datorren eta eremu oso mugatuetan hitz egiten zen hizkuntza izan da beti. Egun ere, hainbat eta hainbat Euskalki desberdin ditugu geografikoki txikia den leku batean, horren isla zuzen bezala. Une hartako nazionalistek Euskera eta Euskeraren irakaskuntza gogor bultzatzen zuten, bai eta honen ofizialtasuna bilatu. Honez gain,

---

<sup>13</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 65. Orr

<sup>14</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 66. Orr

tradizioa eta ohitura rurala defendatzen zuten, eta beraien etsai nagusia Bilbon zegoela zioten: maketoak.

Sabino Aranak adierazi bezala:

*“El calificativo más adecuado al movimiento (nacionalista vasco) no es tanto el de separatismo como el de antimaquetismo. Es ante todo y sobre todo una explosión de enemiga hacia el español no vascongado, el maqueto, establecido en Bilbao y que allí trabaja<sup>15</sup>”*

Balpardaren arabera ikuspuntu hau zen Euskal Nazionalismoaren islada garbi-garbia: psikologia zurrunki itxia, eta betiere, artifiziala. Balpardak sakonki kritikatu zituen pentsamolde hauek, eta bereziki Bizkaian, nun sakonki errotu ziren. Honen arrazoia, autorearen arabera, Eliza Katolikoaren laguntza eta Madrilgo politiken laguntza izan ziren. Laburrean, beraz, Balpardarentzat Euskal Nazionalismoa, lehenago esan bezala, liberalismoaren aurkako erreakzioz sortutako ideia edo pentsamolde bat litzateke, zeinaren arabera, edozein aurrerapen oztopatzen zuen, ohituran zeukaten errotasun zurruna zela eta.

### **3.2.1.- Balparda eta Bizkaitarrismoa**

1.- Bizkaitarrismo Sabinista. Artikulu honetan Balpardak sakonki kritikatzeko zuten Sabino Aranaren pentsamoldea eta ideiak Bizkaiari buruz, bere ideiak guztiz okerrak eta adulteratuak zirela adieraziz. Hitzez hitz honakoa adierazten zuten Aranaren historiografiari buruz:

*“Y si fragmentario e incoherente es el estudio que Sabino Arana hizo de la historia externa de los Fueros de Vizcaya, el de su historia interna lo es aún más, hasta el punto de poder asegurarse que desconocía lo que estos eran. [...] Otra laguna que se nota en este estudio de la historia de Vizcaya del que los bizkaitarras sacan sus premisas: ni una palabra dedica Sabino Arana a demostrar su tesis de*

---

<sup>15</sup> JOSE LUIS DE LA GRANJA SAINZ *El Antimaquetismo: la visión de Sabino Arana sobre España y los Españoles*, Norba. Revista de Historia, Nº 19, 2006. 192 Orr

*que la unidad y la intransigencia religiosas sean constitucionales en Vizcaya y esenciales en su tradición<sup>16</sup>.”*

2.- Propaganda Bizkaitarra. Honi lotuta Balpardak, Sabino Aranaren pentsamolde okerrari eta honen historiaren bertsio adulteratuari jarraiki propaganda Bizkaitar Nazionalista bat sortu zela, politikan parte hartzeko asmoz. Balpardak behin eta berriz adierazi zuen artikuluan zehar beraien porrota eta seriotasun falta:

*“ En resumen, el bizcainismo adquirió vuelos merced al concurso de todas estas circunstancias. Pero en 1895 no se atreve aún a luchar en las elecciones municipales, y hasta después de la guerra no llevó al Ayuntamiento de Bilbao ningún concejal. Después de ella es cuando, más quebrantados aún los partidos de gobierno y en auge todas las tendencias antiliberales, el bizcainismo debería prosperar. En 1899 lleva al Ayuntamiento de Bilbao (que es el único distrito en que las luchas electorales son verdaderamente políticas) 4 concejales sobre 41 de que consta la corporación; al actual se constituyó el 1º de Enero de 1906 con 13 concejales republicanos, 10 socialistas, 10 bizcainas, 7 carlistas y uno solo liberal dinástico, de los cuales fueron elegidos en 1905: 5 republicanos, 6 socialistas, 6 bizcainas y 7 carlistas, sin que los liberales dinásticos pudieran sacar triunfante un solo candidato, lo cual demuestra el punto de descomposición política a que hemos llegado<sup>17</sup>.”*

Artikulu honetan beraz, Balparda argi agertu zen Sabino Aranaren eta hartako Bizkaitar pentsamoldearen aurka, bai eta adierazi zuen Bizkaitarismoa defendatzen zutenak pisu politikoa lortu zutela soilik egoeran zegoen zatiketa politikoaren ondorioz.

## **4.- Balparda Historialaria**

### **4.1.- Historia Crítica de Vizcaya y sus Fueros**

---

<sup>16</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 131. Orr

<sup>17</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 135. Orr

*Historia crítica de Vizcaya y sus Fueros*, Balpardaren obra magna izatera zuzenduta zegoen lana izan zen, autoreak hamabost urte ingurutan zehar landuak. 1924 eta 1934 urteen bitartean lehen hiru tomoak landu zituen, laugarren liburuan lanean zegoela, 1936ko Altxamentua heldu zelarik, azken liburu hau bukatu gabe geratuz. Bizi zela lehen bi liburuak publikatu ziren. Hirugarrena, 1945ean publikatu zen, eta laugarrena, adierazi bezala, bukatu gabe lagatu behar izan zuen Balpardak. Bizi zela publikaturiko bi liburuek ez zuten harrera onegirik izan prentsan, azkenengo liburua oharkabean pasatu zelarik<sup>18</sup>.

Halaber 1945ean, hirugarren liburua publikatu zenean, laugarren liburuaen hasiera honekin batera aurkitu zuten. Horrela, tribu moduan, hirugarren liburuarekin batera, berargitalpen moduan laugarren liburua plazaratu zuen Bizkaiko Diputazioko Kultur Batzordeak. Batzorde honen helburua Balpardaren obra bere osotasunean ulertzea zen; obraren ikuspegi global bat aurkeztea: “[...] *La reedición de las mismas y su publicación conjunta puede, a nuestro juicio, dar una impresión global de lo que la obra total de Balparda hubiera significado como entendimiento del pasado de Vizcaya*<sup>19</sup>.”

Aipatzekoa da, ostea, berredizio hau admirazio ikuspuntu batetik eta, aldi batean, ikuspuntu heroiko batetik egin zela, hitzez hitz adierazten zen bezala bere heriotzari buruz hitz egitean: “[...] *Con su altiva conducta, que había de costarle la vida, Gregorio Balparda dejaba interrumpida la Historia de Vizcaya, que escribía con amor y pasión, para incorporarse él mismo, con el ejemplar episodio de su sacrificio, al acervo de las glorias de nuestra tierra. La muerte de Balparda por negarse a manchar su honor profesional en una*

---

<sup>18</sup>Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 22. Orr

<sup>19</sup> *Historia crítica de Vizcaya y sus Fueros*, Tomo III, edición de Cultura de la Excelentísima Diputación de Vizcaya” Madrid, 1945. 266. Orr.

*infamante parodia judicial, será de ahora en adelante uno de esos sucesos que los pueblos guardan con celo en su memoria porque revelan mejor que cien cronicones indigestos el espíritu de sus hijos*<sup>20</sup>”

Laburbilduz, lau liburutan banatutako obra izan zen Balpardaren obra historiko nagusia, lau liburutik bi bera hil ostean publikatuak, eta azken hau, Balpardak bugatu gabe utzi behar izan zuena. Hau esanda, beraz, bizi zela publikatu zuen obraren forma eta egitura aztertuko ditugu, lan horri eman zion ikuspegi global bat izateko asmoz.

Lehen liburua “*La dominación extrajenera*” deiturikoa hamabi kapitulutan banatu zuen Balpardak. Pasarte hauetan Balpardak baskoien historia aztertu zuen lurralde geografiko eta gizarte bezala, eta nagusiki, inguruko atzerri eta erreinuek honen gain izan zuten eragina: atzerritar lurraldeek nola moldatu zuten momentu hartako gizarte baskoia, bai eta geroago sortuko zen Euskal Nazionalismoan zein nolako garrantzia izan zuten. Honez gain, Euskal gizartearen sustraiei buruz aritzean, Balpardak Euskera ere aipatu zuen, honen eboluzio historikoa, eta Euskeraren ezagutzak eta erabilerak euskaldun identitate sentimendu horretan -bere aburuz, adierazi bezala, artifiziala zena- zeukan garrantzi ezinbestekoa. Pasarteak honela banatu zituen beraz, Balpardak, Lehen liburu honetan:<sup>21</sup>

*I.- Conjeturas sobre la prehistoria.*

*II.- Las tribus indígenas.*

*III.- Griegos, Cartagineses y Romanos: Romanización de los Vascones.*

*IV.- Cántabros y Várdulos*

*V.- Cántabros y Várdulos (continuación): El puerto Amano o la colonia Flavióbriga*

*VI.- La guerra Cantábrica*

---

<sup>20</sup> *Historia crítica de Vizcaya y sus Fueros*, Tomo III, edición de Cultura de la Excelentísima Diputación de Vizcaya, Madrid, 1945. 266. Orr

<sup>21</sup> GREGORIO BALPARDA “*Historia Crítica de Vizcaya y sus Fueros.*” Libro I *La dominación extranjera*, Madrid, 1924. 4. Orr



VII.- *Paz Octaviana*

VIII.- *Del imperio a la Nacionalidad. La descomposición del Imperio Romano.*

IX.- *Del imperio a la Nacionalidad (continuación). El Reino Eurico (466): Arrianos, católicos e idólatras.*

X.- *La unidad política y religiosa.*

XI.- *Intrigas y rebeliones.*

XII.- *Intrigas y rebeliones (continuación): Ruina del Imperio de Toledo: Invasión sarracena.*

Bigarren liburua “*La reconquista cantábrica*” behin aurreko liburua azalduta, atzerritarren influentzia azaltzeari eta aztertzeari jarraituz, hauen influentziak moldaturik, Balpardak Euskal Gizartearen izaera eta honen organizazioa azaldu zuen, bai eta erlijioak honen gain izan zuen berebiziko influentzia, Euskal identitatea eta honi lotuta zeuden Foruen zilegitasun historikoa azalduz eta kritikatu. Honako pasarteetan banatu zuen bigarren liburua Balpardak:

I.- *La Liberación. El reino de Alfonso I.*

II.- *Invasión de Carlomagno y guerras con el Emirato de Córdoba.*

III.- *La Organización.*

IV.- *La desmembración. Los Vascones de la frontera oriental.*

V.- *La desmembración (continuación). Alfonso III (866 a 909) y la constitución del Reino de Navarra.*

VI.- *La desmembración (continuación). Independencia de Castilla y Álava y vasallaje al Califato.*

VII.- *Condes subalternos y Señores fabulosos.*

#### **4.2.- Kokapen Historiografikoa**

Balpardaren obrak, ikusi dugun bezala, Euskal gizartearen ibilbide zabala hartzen zuen, honen sorrera, aldaketak eta eboluzioa zati handi batean

barnebiltzen zuelarik. Ondorioz, kokapen historiografiko batetik, obra Erdi Aroan kokatuko litzateke, Euskal Lurraldean ibilbidea mende horietan zehar aztertuz, adierazi bezala. Garrantzitsua da, beraz, mende horietako zuzenbide iturrien aplikazioa aipatzea. Erdi aroan zehar, zehazki Bizkaia, ohiturak legeztatzen zuen. Ohitura zen zuzenbide nagusi, hasiera batean ahoz ahokoa, eta azkenean idatziz batuak: “Vizcaya se regía por la costumbre, entendida y explicada por sus vecinos o ciudadanos en sus asambleas al aire libre que representaban a varios distritos, que después se llamarían Merindades o Anteiglesias” [...] “De modo que, comenzando por costumbres ancestrales que se van afianzando y conformando un *modus operandi* que consuetudinariamente se transmite, acabase por recibir leyes escritas que unas veces superponen, otras confunden y algunas modifican, aquellas consuetudinarias *mores*.”<sup>22</sup>

Idea honi kontrajartzen zaio behin eta berriz adierazi dugun Balpardaren ideia: Euskal Nazionalismoa eta Euskal identitatea faltsu eta artifizialki sortuak zirela. Ulertzekoa da, ondorioz, Balpardak tesi hau behin eta berriro errepikatzea obran zehar, autorearen ideia nagusienetariko bat izan zelarik. Ideia nagusi honetaz gain, badaude obra aztertuta, beste zenbait ideia behin eta berriro errepikatzen direnak, eta adierazitako ideia nagusiari estuarki lotuak.

Alde batetik, Castillarekiko dependentzia, eta foruen xede nagusia Castillako legeen antzekotasuna lortzea zela, eta ez honetatik aldentzea. Honi lotuta, foruen originaltasuna baztertzen zuen, Castillako legeetatik eratorritako arauak zirela adieraziz. Bestalde, bere tesi nagusienetariko bat ere foruen eremu aplikazioa izan zen: Foruak udalerrri mailan sortu eta aplikatzen zirela, eta inoiz ez, probintzia mailan, are gutxiago hiru probintzietako irismenarekin. Ideia hauek estuarki lotuta daude adierazi dugun ideiarekin, eta guztiak daude lotuta ohituraren sorrera eta finkatzearekin, Balpardaren tesian berebiziko garrantzia izan zuten faktore bezala.

---

<sup>22</sup> Félix ALONSO Y ROYANO, *El panorama histórico-jurídico en el señorío de Vizcaya* Boletín de la facultad de Derecho Nº 12, Bilbao, 1975. 528. Orr

### 4.3.- Balpardaren eragina 1899ko Kodegintza proiektuan

1899. Urtean Bizkaiari aplikagarri izango zitzaion Kode Zibileko Anexoaren proiektua publikatu zen. Proiektu horretan bertan Balpardak pisu handia izan zuen, proiektu hau hainbat urte atzeratu zuelarik. Balpardak proiektu honi buruz adierazi zuena Bilboko Abokatu Eskolako hainbat kidek defendatu zuten urte hauetan zehar, zehazki: *“Debe a todo trance evitarse que, sin radicalísimas reformas, el Proyecto de Apéndice formulado... llegue a ser ley”* Adierazpen hauek Balpardak garaian izan zuen pisu politikoa gehituz, sekulako indarra eta garrantzia izan zuten Kodegintzan<sup>23</sup>.

Balpardak hainbat argumentu adierazi zituen honen aurka. Lehendabizi, forma aldetik narratiba jarraia ez zitzaion bat ere atsegin, Kode Zibileko estrukturaren aldekoa baitzen. Gainera honen formulazioa zehazgabea eta akatsduna zela adierazi zuen.

Kritikaren mamiari dagokionez, Kodegintza prozesuan eragin handiena izan zutenak aipatuko dira:

1.- Testamentu xedapenak: Balpardaren ustez, Baserriari zegokion erregimen berezia mortis causa testamentu xedapenetan honek zeukan familiarekiko lotura zen, eta ez, testamentu askatasuna, hau da, ongi tronkal baten izaera eta arau bereziak honek zeukan kutsu familikoan zeukan oinarri, eta ez Bizkaitarrei onartutako testamentu askatasunean. Horrez gain, guztiz aurkako zen, eta gogor kritikatu zuen ongi tronkalei onartzen zitzaien lehentasunezko eskuratzea -Adquisición preferente, egun indarrean jarraitzen duen figura juridikoa-. Beraz, ondorioztatu daiteke, tronkalitatearen eta honen heleraren guztiz aurka agertu zela Balparda.

---

<sup>23</sup> Gregorio MONREAL ZIA *Codificación civil y legislación foral de Bizkaia* Anuario de historia del Derecho español, Nº 83, 2013, 227. Orr

Honez gain, Bizkaiko lurralde aforatuak onartzen zituen hainbat testamentu motak eta hauen figura juridikoak gogor kritikatu zituen, beti hauen aurka agertu zelarik. Bere aburuz sentzugabe eta ulergaitza zen ondare guztia seme bakar bati lagatzea, beste seme-alaben oinordekotza eskubidea baztertuz. Horrez gain testamentu mankomunatuaren aurka agertu zen, bai eta komisarioaren figura juridikoaren aurka, honen eskumenak gehiegizko kontsideratzen baitzituen<sup>24</sup>.

2.- Bizkaiko Ezkontz Erregimena: Balpardak bereziki baztertu zuen ideia, agian aurrekoa baino gehiago. Balpardarentzat onartezina zen Bizkaiko lurralde aforatuek zeukaten ezkontz erregimena, *comunicación foral de bienes*. Balpardaren ustez, ezkontz erregimen hau ez litzateke zuzeneko aplikazio behartukoa izan behar, eta aldiz, aukera izan beharko litzateke, ezkontz kapitulazio bitartez<sup>25</sup>.

Arrazoi hauek oinarri bezala, proiektuaren guztiz kontra, Balpardak aktiboki sustatu zuen honen geratzea, eta 1908 eta 1913 bitartean egon ziren inizatiba guztiak baztertu zituen, adierazi bezala, jada zeukan estatus politikoaz baliatuz. 1916an Justizia Ministerioak Bizkaia eta Arabako Aldundiei bai eta abokatu eskolei Apendizearen informea berehala bidaltzeko agindua eman zieten. Balpardaren berebiziko eragina zela eta, Bilboko letratuek ez zuten ezagutzera eman beraien informea, Arabakoek ez bezala, zeinek hau onespenez bideratu eta Gorteei aurkezteko eskaera egin zuten.

Argi geratu zen, beraz, Bilboko Abokatu Eskolan blokeo bat egon zela informe horren gain, baina bazegoen aldiz, arau foralak sistematizatzeke

---

<sup>24</sup>Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 201. Orr

<sup>25</sup>Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos*-, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 226. Orr

intentzio argia<sup>26</sup>. Puntu honetan zegoen geraldia Primo de Riveraren diktaduraren eskutik bukatu zen: Erregimen hartan Diputazioa diktadurarekin bat zetorren Probintzi Komisio batek ordezkatu zuen, 1927. Urtean. Izendatuek aho batez onartu zuten 1900eko Apendizea, Balpardak proposatutako hainbat tesi onartuz.

Ondorioz, hil-buruko testamentua errekuperatu zen, komunikazio forala presumitzen zen salbu ezkontz kapitulazioak eman baziren, eta ezkontide alargunaren babesa gehitu zen. Hogeita hamar urte berandutu zen proiektua, baina azken finean, bazegoen txosten positibo bat. Halaber, Primo de Riveraren diktadura jada krisi egoeran zegoenez, ezinezkoa egin zen proiektua Gortetan aurkeztea.

#### **4.4.- Balorazioa foraltasun pribatuan**

Aurreko atalean ikusi dugunez, Balpardak ikuspuntu bereziki zurruna izan zuen Bizkaiko ondasun zehatz batzuen arau berezien aplikazioari buruz, zehazki, ongi tronkalak eta aforatuek zeukaten berezko ezkontz erregimenari buruz. Puntu honetan, beraz, bi hauen inguruan sakonduko da.

Atal honen abiapuntu eta aztergai Balpardaren “El Fuero y el Caserío” txostena izango da, Bilboko Abokatu Eskolari zuzendu zuena, 1913-an.<sup>27</sup>

*“La razón fundamental de mi disentiimiento con la mayoría de la comisión esté en que, para mí, el Fuero ha sido, es y debe ser la Ley del caserío, y así como considero un absurdo el que se regulen por él la propiedad urbana de las villas o la población eminentemente*

---

<sup>26</sup> Gregorio MONREAL ZIA *Codificación civil y legislación foral de Bizkaia* Anuario de historia del Derecho español, Nº 83, 2013. 230. Orr

<sup>27</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 251. Orr *El fuero y el caserío* Informe elevado a la Junta general el Ilustre Colegio Abogados de Bilbao, por D. Gegerio de Balparda, impreso en Bilbao, 1913

*industrial de concejos o anteiglesias como los de Sestao y Baracaldo, que según la proposición de Ley por él habrán de regirse, así también considero injustificado el que deje de aplicarse a los caseríos enclavados extramuros, pero dentro de los términos municipales de las villas en que se declara vigente la Ley común.”*

Atal honetan Balpardak tronkalitatea eta eskubide tronkalak kritikatzentzuten. Adierazpenen arabera, ez zeukan sentzurik aplikazio geografikoak, izan ere, arau hau, bere ustetan, baserria zen ongiari soilik aplikatu beharko litzaiokeen. Designazio geografiko berdina hau, eta kritika berdina, egungo 2015eko legeari aplikatzen zaizkio.

*“Hay un apego excesivo al modelo medieval de nuestros fueros. El tiovivo – la conjunción de todas las instituciones con incidencia sucesoria en torno al eje troncal- encajaba como un guante en un contexto socioeconómico de hace cinco siglos. Pero resulta imprescindible que, en el momento actual, y ante la oportunidad que se nos presenta, cuestionemos, seriamente, la vigencia y dimensión de nuestras instituciones<sup>28</sup>.”*

Balpardaren kritika hau gaur egungo egoera deskribatzeko guztiz baliozko litzateke, ez dago inongo zalantzarik, eta harrigarria dirudi nola Balpardak orain dela 100 urte egindako kritika bat egungo autoreekin bat etortzea, puntu batera arte bada ere.

*“No puedo por esto suscribir una delimitación geográfica, cualquiera que ella sea, que divida la provincia en dos zonas, a sometida al Fuero y otra a la legislación común; el Fuero debe subsistir conjuntamente con el Código Civil en toda la provincia, limitada su aplicación por razón de las coas, y de este modo no vendría a ser si no una ley especial aplicable al caserío que no rompería la unidad legislativa provincial, como no la rompe la existencia simultánea de una Ley de Aguas, otra de Minas, otra de Propiedad intelectual, etc., etc., como no la rompe la coexistencia en el mismo Código civil de leyes que sólo son aplicables a los censos, verbigracia, y otras que lo son solamente a los bienes muebles.”*

Kritikaz gainera, atal honetan Balpardak alternatiba bat eman zuen, une artan adierazten zen -eta egun berdina izaten jarraitzen duen- delimitazio geografikoari:

---

<sup>28</sup> Leire IMAZ *Instrumentos o cauces de ordenación sucesoria ante la reforma del derecho de sucesiones contenido en la vigente ley de de Derecho Civil foral del País Vasco*, Universidad del País Vasco, 2013. 4. Orr, 3. Puntua

lege bien koexistentzia eremu geografikoetatik kanpo, eta honen aplikazioa dagokion ongietan soilik, hots, baserriei. Honen arazoa, egun behintzat, baserri bat zer den, edo zein kriterio erabili hauek identifikatzeko, izango litzateke, 100 urte baino gehiago izan direlako bitarte. Balpardaren garaian, bereizketa nabaria zegoen rurala zen eta urbanoa zen Bizkaiaren artean, baserri kontsideratu ahal ziren ongien identifikazioa argiakoa zelarik. Horregatik Balpardak aplikazio ikuspuntu hau zuzenago ikusten zuen, azkenean aplikatu zen banaketa geografikoa baino. Aurretiaz aipatu bezala, ongi tronkalei egindako kritikari gehitzen zaion argumentuetako bat litzateke hau.

*“ [...] Añádase la fuerte constitución de la familia, una familia que, en la época en que los Fueros, buenos usos y costumbres de Vizcaya se venían silenciosamente engendrando sin haber sido aún recogidos en leyes escritas, había dejado de ser la familia patriarcal, pero conservaba, por reminiscencias de la, organización feudal, su trabazón y enraíce con la propiedad de la tierra; recuérdese además la característica fisonomía social de este antiguo Señorío, donde la aspereza del suelo no permite grandes propiedades [...] y con todo esto presente, se comprenderá cómo el Fuero de Vizcaya no podía menos de ser, y este es el carácter que ha conservado a través de su redacción de 1452 y prevaleciendo sobre las adulteraciones de 1562, la ley de la propiedad rústica, de la propiedad, de la pequeña propiedad familiar, la ley del caserío ”*

Honela deskribatzen du Balpardak Foruen xedea Zuzenbide Zibilean. Foruen benetako xedea baserriaren banatezintasuna printzipio moduan babestea eta honen eskualdaketak edo segregazioak saihestea zen. Honen ondorioz, Balpardak horrela definitu zituen foruak, baserriaren lege bezala. Uler daiteke, lehenago esan bezala, tronkalitatearen oinarritzko xedea hauxe zela.

*“La desheredación de todos los hijos menos uno, constituiría una manifiesta injusticia en casi todos los casos en que se tratara de grandes patrimonios. Tratándose del caserío, unidad industrial indivisible, cuya corta extensión no admite segregaciones, [...] esa transmisión íntegra a un solo heredero a la muerte de los padres o por donación en su vida, cuando la edad los inutiliza para el trabajo, es una necesidad.”*

Hauxe litzateke, beraz, aurreko parrafoan adierazitakoaren ondorioa. Bizkaian baserriarekiko sortu ziren arauak beharrianetik eratorri ziren,

beharrizan erreal eta egunerokotik, baserria bizkaitarren ogibide eta nukleo beharrezkoa zen, baserria segregatuz, zatituz, eskualdatuz, nukleo beharrezko hori desagertuko litzateke. Beraz, nukleo hau babestea ezinbestekoa zen Bizkaitarrentzat.

*“Y si en sus orígenes y por su naturaleza misma las instituciones civiles del Fuero de Vizcaya, y con las políticas ocurre lo mismo, nacieron íntimamente ligadas a la pequeña propiedad rural, este carácter se afirma y ratifica en el curso de la historia. Cuandoquiera y comoquiera que la gran propiedad u otra propiedad distinta de la rural ha nacido en Vizcaya, ha surgido o contra el Fuero o regulada por leyes distintas y a parte del Fuero”*

Parrafo honetan lur lauaren eta hiribilduen arteko desberdintasuna azaltzen zuen Balpardak: bere xedean, adierazi bezala, Foruak baserria bera arautzen zuen, eta beste ongien agerperaren aurrean, hauek Forutik kanpo geratu ziren. Noski, hauek hiribilduen sorrerarekin gailendu ziren. “ [...] *Todas las clases de propiedad, excepción hecha de la pequeña propiedad rural, vienen excluyéndose de la aplicación del Fuero”*

Baserriari aplikagarri zitzaizkion arau berezien xedea azalduz, beraz, Kodegintza prozesuan adierazi zen banaketa aztertzen du Balpardak.

*“ Y siendo esto así y teniendo el Fuero su esfera de aplicación limitada naturalmente al caserío, y esto por espíritu peculiar que le informa, con el apoyo de una constante tradición, ¿qué razones puede haber para consagrar el dualismo legislativo aceptando una delimitación geográfica que divide caprichosamente a Vizcaya en dos partes jurídicamente distintas? ¿No es lo más respetuoso para la tradición y a la vez lo más acomodado a las necesidades actuales de la provincia el acabar con ese dualismo legislativo nacido de la confusión que toda transformación económica y social trae consigo, pero injustificado, una vez que un nuevo estado de cosas se ha establecido y consolidado, y declarar al Fuero, ley especial del caserío, vigente en toda Vizcaya? ¿No es esta una solución que armoniza todas las conveniencias y todos los intereses?”*

Berriz ere banaketa geografikoaren kritika. Banaketa hau Balpardaren garaian, eta egun indarrean jarraitzen duen egitura, Bizkaia bitan zatituz sortu zen: Bizkaia hiritarra eta Bizkaia rurala. Delimitazio geografiko honek egun



ere nahasia izaten jarraitzen du, udalerrri baten barruan bai Bizkaia hiritarra bai rurala aurkitu ditzakegularik. Balpardak oso argi lagatzen zuen pasarte honetan: bere ustez ez zeukan inongo sentzurik banaketa geografiko honek, foruen xedeak ongi konkretu bat babesten bazuen, ongi hori babestera zuzendutako aplikazio araua izan beharko litzateke, eta ez banaketa geografiko baten araberakoa.

*“¿Y qué diremos de la comunidad de bienes en el matrimonio? Nazca enhorabuena esa comunidad del contrato de capitulaciones libremente pactado, cuando los contrayentes lo estimen oportuno; pero a falta de contrato, cuando se trata de fortunas considerables aportadas para renta, por cada uno, ¿en qué puede basarse la presunción de que quieren dotarse mutuamente en sus diferencias de capital?”*

Balparda tronkalitatea momentuz alde batera utziz, ezkontz erregimen aforatua azaltzen eta sendoki kritikatzeko zuen: ezkontza kapitulazio faltan, aforatu Bizkaitarrei ezkontz erregimen hau zitzaien aplikagarri, zeinetan ez zen ongi pribatiborik onartzen, eta desberdintasun nabariak zituenak irabazpidezko erregimenarekin. Balpardak argi agertu zen honen aurka, eta bere ustetan erregimen hau presuntzio utsezkoa izan behar zen.

*“Hace mucho tiempo que la tierra llana de Vizcaya no es ya un país de pequeños propietarios; [...] y la prosperidad general de la provincia y el enriquecimiento de muchos en América han hecho abandonar los caseríos a sus antiguos propietarios para acudir a las villas en busca de mayores comodidades. Todo ello ha creado una situación bien distinta de la que existía al formarse el Fuero. [...] ¿Con qué criterio han de solucionarse cada una de las cuestiones que la adecuación del Fuero tal como quedó redactado en 1526 a las necesidades actuales hace surgir? Estos son ya puntos de detalle sobre los que no me considero llamado a informar. Basta a los fines de este informe dejar asentado que la Proposición de Ley o cualquiera otra delimitación geográfica para la aplicación del Fuero desconociendo y desvirtuando su propio y natural sentido de ley del caserío, independientemente de que éste se halle enclavado en término de una villa o una anteiglesia, prejuzgaría el desarrollo de sus instituciones de manera que haría imposible el tomarle por base para la reforma que queda indicada”*

Txostenaren bukaeran adierazi zuen bezala, Balpardak garrantzi berezia ematen zion bereizteari Forua soru zeneko Bizkaiko egoerari eta berak bizi zuen egoerari. Lehenago adierazi dugun bezala, Balpardak bizi izan zuen unea, egoera politiko, historiko eta sozial oso berezia eta aldagarria izan zen. Hau horrela, Balpardak bizi zuen Bizkaian baserriak bigarren plano batera pasatu ziren, non hiribilduen protagonismoak itzaltzuten. Baserria jada ez zen lehenago izan zen nukleo familiar eta ekonomikoa, baizik eta bigarren mailan geratu zen eta jada uztiatzen ez zen figura bat. Ondorioz, Balparda delimitazio geografikoaren guztiz kontra agertu zen, bere esanetan, honek Foruen xedea guztiz zapuzten baitzuen, Bizkaia bitan zatituz, hau errealitatearekin bat ez batzetorren ere.

Behin hau esanda, Balparda kodegintza proiektuaren aurka adierazi zen, esan bezala, eta bost ondorio azaldu zituen, esandakoarekin bat<sup>29</sup>:

- 1.- Bizkaiko Forua ongi rustikoei (baserriei) soilik aplikatu behar zitzaiela.
- 2.- Delimitazio geografikoak ez zeukala inongo sentzurik, eta dualismo hori desagertu beharko litzatekeela.
- 3.- Foruaren Kodifikazioa ongi rustiko horiei aplikagarri zaizkien arauen erreformara zuzendu behar zela.
- 4.- Gorteetara aurkeztu zen lege proiektua ukatu beharra zegoela.
- 5.- Aldundiaren egitekoa zela ongi rustikoei aplikagarri zaizkien arauen erreforma sustatzea eta egokitzea.

## **5.- Ondorioak**

Ikusi dugunez Balparda benetan pertsonaia polemikoa izan zen, bere ideiak gogor defendatu zituena, bere bizitza propioa arriskuan jartzeraino. Kritiko sutua izan zen Euskal Nazionalismoarekin bai eta honen Foruekin,

---

<sup>29</sup> Iñaki IRIARTE LÓPEZ, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013. 263. Orr *El fuero y el caserío* Informe elevado a la Junta general el Ilustre Colegio Abogados de Bilbao, por D. Gregorio de Balparda, impreso en Bilbao, 1913

hauek sakonki aztertu ondoren, eta Bizkaiko egoera juridiko, politiko eta historikoa aztertu eta gogor kritikatu zituen honekin batera.

Balparda nire ustetan bere garaiko figura benetan partikularra izan zen. Balpardaren pentsaerak eta honen idatziak ulertzea, identifikatzea, eta pentsaera lerro zuzen batean jartzea ez da erraza. Zaila litzateke Balparda argumentu bezala erabiltzea diskurtso politiko batean. Baina bere Bizkaiko egoeraren eta honen Foruen kritika benetan harrigarria iruditzen zait.

Balpardak Kodegintza geldotzea lortu zuen bere sinismen eta kritikaz, bere figura politikoak lagundu bazuen ere. Kritika horiek, bai eta Bizkaiko Foruei buruzko tesiak erabilgarri iruditzen zaizkit, egun ere. 2015eko Euskal Legea indarrean sartu zenean, hainbat eta hainbat figura aldatu ziren: Legitimak, aplikagarri ziren figurak, komisarioaren figura... Baina Balpardak hainbeste kritikatzin zituen figura biak indarrean diraute: Komunikazio Forala eta Tronkalitatea.

Hauekin sartu baino lehen, Balpardak hainbeste kritikatu zuen beste figura bat komentatzeko beharra daukat. Balpardak adierazten zuen bezala, inoiz ez zen Foru legeen unifikaziorik eman hiru probintzien artean. 2015eko legearekin, arlo pribatuan berebiziko unifikazioa eman zen, aforatuei soilik aplikagarri zitzaien hainbat figura eskualde osora hedatuz. Interesgarria izango litzateke autoreak honi buruz zer pentsatuko lukeen jakitea, baina hiribilduetako pertsoneri aforatuei aplikatzen zitzaizkien arau berezi berdinak aplikatzea -bereziki mortis causa testamentu xedapenetan, *poder testatorio* figura adibideko, lehengo *alkarpoderosoaren* islada- argi dago bere pentsaerarekin guztiz kontrajartzen den ideia dela.

Ezkontz erregimen aforatura eta tronkalitateara itzuliz. Hainbat eta hainbat autore agertu ziren kodegintza garaian figura hauen kontra, gehien bat tronkalitateari dagokionez. Tronkalitatearen xedeak argi geratu dira lanean zehar, baina autoreak berak adierazi zuen bezala, eta ehun urte beranduago, tronkalitatearen xedeak ba al dute egungo Euskal gizartean isladarik?

Balpardak berak azldu zuen bezala, tronkaliteatea beharrizanetik jaio zen. Beharrizan horrek existitzen jarraitzen al du?

Balpardak duela ehun urte planteatu zituen galderok, eta egun, indarrean jarraitzen duten figura juridikoak diren einean, printzipioz erantzuna baiezkoa litzateke, baina hainbat autoreren arabera, erantzun hau ez da hain argia.

Balpardaren hitzetara bueltatuz: Tronkalitateak familia eta familiaren nukleo den baserria babesten ditu. Zer da egun, beraz, baserria? Ezin daiteke ulertu familia nukleo bezala, sentimentu adierazpen batetik kanpo. Baserrien uztapienak martxan jarraitzen du, noski, baina ez nukleo ekonomiko eta familiar bezala, ez behintzat, bizkaitar gehienontzat. Beraz zein erabilera dauka egun tronkalitateak?

Ez da erantzun erraza. Har dezagun adibidetzat hiribildu bat, lur lauak guztiz inguratzen duena: Lekeitio. Lekeitio eta bere lurra, kostatik hasita eta honen mugetaraino, hiribildua da. Honen inguru guztia, herri eta auzoak, lur laua. Nola ulertzen du beraz, Lekeitiar edo Mendexar batek, tronkaliteatea? Kasu gehienetan ez du ezagutzen, edo ezagutzen badu, ez du salerosketa bat formalizatzeko bete beharreko traba bat bezala baino ulertzen. *Llamamiento foralak* egitea tramite luzea eta neketsua da, eta errealitatean, betebeharrak *sine qua non* ez bada, hauek saihesten saiatzen dira.

Galdetuz gero, esango nuke, Lekeition behintzat, tronkalitatearen figura traba bezala ulertzen dela, edozein negozio juridikotan. Ez dut uste Bizkaian zehar desberdin izango denik.

Balpardaren bigarren kritika tronkalitateari: eremu geografikoaren delimitazioa. Hartu dugun adibidean, Lekeition, hau benetan interesgarria da: hiribildu bat, lur lauetako eremuak hartzen joan dena arrantzaren (eta herriaren beraren) hazkundearen ondorioz, zeinaren delimitazioak ez diren guztiz argi geratzen. Lekeition badaude baserriak, eta badaigo baserri uztapienik, inguruko

lur lauan dagoen berdin-berdin. Desberdintasun nabariena da, hauen baserriak inoiz ez direla izango ongi tronkal. Badaude bata bestearen alboko higiezinak, muga, bata hiribilduan kokatzen denarik eta bestea, lur lauan.

Hau esanda, Balpardaren hitzak egun ere indarra mantentzen dutela uste dut, gehien bat, berarekin bat natorrelako gai honetan. Beharrianetik sortutako arauak beharrian hori betetzera eta horretara soilik zuzendu beharko liratezkeela uste dut, autorearekin bat, eta hau desagertzean, desargetu beharko liratezkeela.

Bukatzeko, ezkontz erregimen aforatua. Berriz ere Lekeitioaren adibidera bueltatzen naiz. Lekeitiar bati galdetuz gero ea zein ezkontz erregimenean dagoen ezkontuta -ulertuz ez dela kapitulaziorik eman- irabazipidezko erregimenean dagoela erantzungo dizu. Amortoko pertsona bati berdina galdetuta, erantzun bera emango dizu.

Praktikan, ez luke arazo gehiegirik sortu beharko erantzun honek, baina komunikazio foralean ezkontuta dagoen pertsona batek jarauspenez pribatiboki jaso duen ongi bat saltzea erabakitzen badu, tronkalitateaz arduratu beharrez gain -hau lur lauan kokatuta badago- bere ezkontideak salmenta hori onartzeaz arduratu beharko da, adierazitako 2015eko Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko legearen 135.1 artikulua araber, naiz eta bere ezkontideak higiezin horrekin inongo zer ikusirik ez izan.

Guzti hau adierazita, beraz, nire ondorio nagusia Balpardaren hitzen islada zuzena da egungo egoeran, eta Balpardak adierazitako ideia bakarrarekin geratu beharko banitzateke: Ba al daukate sentzurik foruek ezarritako eragozpenek transmisioetan, ongiak familiko nukleo izaera galduko balu?

## **6.- Bibliografía**

### **Liburuak:**

**Iñaki IRIARTE LÓPEZ**, *Gregorio Balparda. Escritos políticos-*, Estudio preliminar y edición de Iñaki Iriarte López, Textos Clásicos del Pensamiento Político y Social en el País Vasco nº 11, Universidad del País Vasco, Bilbao, 2013.

**Ander DELGADO CENDAGORTAGALARZA** *La transformación de la vida política en la Bizkaia rural durante la restauración 1890-1923, Extranjeros en el pasado. Nuevos historiadores de la España contemporánea*, Universidad del País Vasco, 2009.

*Historia crítica de Vizcaya y sus Fueros*, Tomo III, edición de Cultura de la Excelentísima Diputación de Vizcaya, Madrid, 1945.

**GREGORIO BALPARDA** “Historia Crítica de Vizcaya y sus Fueros.”  
Libro I La dominación extranjera, Madrid, 1924

### **Aldizkariak:**

**Rocío GARCÍA ABAD**; *Las redes migratorias entre el origen y la Ría de Bilbao a finales del siglo XIX: una aproximación metodológica*, Revista Demográfica Histórica, volumen 20, Nº 1, 2001.

**JOSE LUIS DE LA GRANJA SAINZ** *El Antimaketismo: la visión de Sabino Arana sobre España y los Españoles*, Norba. Revista de Historia, Nº 19, 2006.

**Félix ALONSO Y ROYANO**, *El panorama histórico-jurídico en el señorío de Vizcaya* Boletín de la facultad de Derecho Nº 12, Bilbao, 1975.

**Gregorio MONREAL ZIA** *Codificación civil y legislación foral de Bizkaia*  
Anuario de historia del Derecho español, N° 83, 2013.

**Bestelakoak:**

**Leire IMAZ** *Instrumentos o cauces de ordenación sucesoria ante la reforma del derecho de sucesiones contenido en la vigente ley de de Derecho Civil foral del País Vasco*, Universidad del País Vasco, 2013.

**Ley 5/2015** de 25 de Junio, de Derecho Civil Vasco

**Ley 3/1992** de 1 de Julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco